



Arrasateko Udalaren adierazpen instituzionala, atzo herrian izandako lan-istripu hilgarriaren aurrean.

1. Arrasateko Udalak aho batez adierazten du atsekabea atzo arratsaldean herrian izandako lan-istripu baten ondorioz hil zen langilearen heriotzagatik, eta doluminak helarazi nahi dizkie hildako langilearen familiari, lagunei eta lankideei. Halaber, lan-istripuen aurkako salaketa publikoki egiten du, eta Eusko Jaurlaritzako Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea den OSALAN-i heriotzaren nondik norakoak argitzeko eskatzen dio.
2. Ezbeharra kolpe latza izan da herriarentzat, baina bereziki langile guztientzat.
3. Beharrezkoa da langileen osasun eta segurtasun neurriak bermatzea, horregatik, erakunde guztiei elkarlana eskatzen die hau betetzeko, eta laneko arriskuen prebentzioko jardunbide egokiei buruzko proiektuak bultzatzeko konpromiso garbia erakusten du, lan administrazioarekin eta sindikatuekin eta patronalekin koordinatuta.
4. Arrasateko Udalak ere bat egingo du istripu tamalgarri hau salatzeko eta hildakoaren familiari elkartasuna eta babesa adierazteko ekimenekin, eta herritarrak horietan parte hartzera animatzen ditu.



Declaración institucional del Ayuntamiento de Arrasate ante el accidente laboral mortal sufrido ayer en la localidad.

1. El Ayuntamiento de Arrasate expresa por unanimidad su pesar por la muerte del trabajador que falleció ayer por la tarde tras un accidente laboral en la localidad y quiere trasladar sus condolencias a la familia, amigos y compañeros del trabajador fallecido. Asimismo, hace pública su denuncia contra la siniestralidad laboral y pide a OSALAN, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales del Gobierno Vasco, que aclare las circunstancias del fallecimiento.
2. El siniestro ha supuesto un duro golpe para el pueblo, pero especialmente para todos los trabajadores y trabajadoras.
3. Es necesario garantizar las medidas de salud y seguridad de los trabajadores, por lo que requiere de la colaboración de todas las instituciones para su cumplimiento y muestra su compromiso inequívoco con el impulso de proyectos de buenas prácticas en prevención de riesgos laborales, en coordinación con la administración laboral y los sindicatos y patronales.
4. El Ayuntamiento de Arrasate también se sumará a las iniciativas para denunciar este lamentable accidente y mostrar su solidaridad y apoyo a la familia del fallecido, y anima a la ciudadanía a participar en ellas.